



DANI BLANCO

**Garbiñe  
Biurrun  
Mancisidor**



LEGELARIA

## M24: egun bat gehi lau urte eta marra gorriak

GOGOAN AL DUZUE espetxealdiak X urte gehi egun bat izaten zirenean? Egundun horrek markatzen zuen hurrengo espetxe zigor mota larriagoarekin zegoen aldea, baina ez zeukan beste garrantzirik. Orain, aldiz, pasa den maiatzaren 24ko hauteskundeetan –besteetan bezala, noski– egun bat izan da erdigunea, nahiz eta egun horri lau urte gehitu behar zaizkion. Beraz, egun ditxosozko hori atzean utzi eta gero, aurrera egin behar da hurrengo lau urteetan. Hau da: egun batean hurrengo lau urteak erabaki ditugu gure udaletan eta foru aldundietan.

Horretaz aritu dira, bai, indar politikok: boto kopuru handiena ateratzen saiatzen M24an, etorkizunean zer egingo zuten azalduz –edo isilduz, estilo desberdinak daude eta–. Baina oso bitxia egin zait hainbat alderdik –estatu mailakoek– proposatzea edo eskaintzea, ez udaletan, ez foru aldundietan, ezta autonomia erkidegoetan ere, erabaki ezin daitekeena. Zergatik ez dituzte mugatu euren diskurtsoak hauteskundearen eremuetara? Ez al zuten proposamen berezirik esparru horietarako?

*Beldur naiz, hemendik udazkeneko estatuko hauteskunde orokorrak bitartean alderdi batzuek ez ote duten beren posizioa higatu edo ahuldu nahiko, eta horretarako, beharbada, ez dute mugimendu bakar bat ere egingo edota deus ere arriskatuko*

Bestalde, hauteskunde hauetan argi egon da –horrela diote emaitzek; portzertio, zertarako horrenbeste inkesta?– inork ez duela gehiengo nahikorik lortu bakarrik gobernatu ahal izateko, hiri handietan eta foru aldundietan, behintzat. Argi dago baita ere, susmo hau kanpainan zehar ibili dela eta asko baldintzatu duela alderdiek esan –edo isildu– dutena.

Panorama horretan, ezinbestekoa izango da itunak eta akordioak lortzea gure erakundeetan, gehiengo sendoak osatzeko edo, behintzat, gobernu ahulegiak ez eratzeko. Eta hor dago gakoa, inork ez

baititu bere asmoak garbiki azaldu nahi izan kanpainan, ezta une honetan ere.

Batzuek “marra gorriak” jarri dituzte, honekin edo harekin ez adosteko: PSOEk baditu bere marra gorriak –PSOE aipatu dut, Sanchez berak esan zuelako–: EH Bildu eta PP. PPK ere bere marra gorriak ba omen ditu edo, hobeto esanda, beste alderdi gehienek marra gorrietan sartuta dago. Gipuzkoan ez dakigu Podemosek zer egingo duen eta Nafarroan ez dakigu zein izango diren behin betiko marra gaindiezin horiek eta zer egingo duten Podemosek eta PSNk –barka ezazue, PSOEk–, benetan aldaketa sakonaren alde baldin badaude, orain horretarako, berriro ere, aukera dagoelarik. Ez EH Bilduk ezta EAJk ere ez dute adierazi zer egingo duten Donostian edo Gipuzkoako Foru Aldundian– irabazi duenari gobernatzen utzi ala itunak lortu beste gehiengo bat lortzeko–.

Isileko horrek kezkatzen nau. Alde batetik herritarrok alde aurretik jakin beharko genukeelako gure botoak zertarako balioko duen. Badakit hori aurreratzeko ez dela beti erraza, aldagai askoren baitan dagoelako: emaitzak, egitasmoak... Baina, adibidez, jakitea ea irabazi duen indarrari utziko zaion gobernatzen ala ez, edota lehen indar hori nor denaren arabera izango den. Bestalde, beldur naiz, hemendik udazkeneko estatuko hauteskunde orokorrak bitartean alderdi batzuek ez ote duten beren posizioa higatu edo ahuldu nahiko, eta horretarako, beharbada, ez dute mugimendu bakar bat ere egingo edota deus ere arriskatuko. Pentsa ezazue, bestela, Nafarroan edo Gipuzkoan: zer egin behar dute emaitza hauen ondoren estatu mailan udazkenean benetan lehiatu nahi dutenek? Zer egingo du, esaterako, Podemosek? Benetan sustatuko du bere ustetan aurrerakoa den gobernu, kastakoa ez den gobernu, ala taktika hutsez arituko da, burua ezkutatuz, abstenituz, negoziatu gabe? Eta erabaki horiek ezingo dute hauteskunde orokorren zain egon, noski. Ikusteko dago, beraz: herriak hitz egin du. Orain ordezkarari arduratsuen garaia da –besteekin beharrik ez dago eta hemen–. ■